

ZEIN DA ZEIN?

Espaloiazen beste aldean
azaldu zara gaukoan ere.
Arrotza zait zure begirada,
hori ez da inolaz, betiko istada.

Zein ote da zein?
Zuri begira,
zein ote da zein?
Zein da zein?

Zein da zein? (Lautan)

Zama astuna bizkar gainean,
pozoindurik zaudе bihotza euritan.
Aurpegia guztiz estalita,
azken aginduaren esperan.

Ez zaitut maite?
Inolaz ere
ez bazaitut maite?

Zein da zein?
Zein da zein? (Lautan)

Ume aroan nire lagun minena,
orain nire parean aurkitzen zara.
Lege eta ordenuaren mozorropean,
jadanik ez dakit, zein ote den zein.

Urduri zaudе
urduri zaudе
aginduaren beldur
urduri zaudе.

Zein ote da zein?
Zuri begira,
zein ote da zein?
Zein da zein?

Zein da zein? (Lautan)



NAHIKOA DA!

Mila kilometrotara hizketan aritzen zara
irritati tertulietan, orojakile moduan

Hitzontzia!
Hori besterik ez zara!

Kazetari, bakezale, egi bakarraren jabe,
bertako gaien epaile, bertan bizi izan gabe

Nahikoa da!
Gogaiturik nago jada!
Nahikoa da!
Gogaiturik gaude jada!

ESAI DAZU

Esaidazu,
ez omen ginen gu
etorkizunaren harrobia?
Geroaren eraikitzaileak?
Erronka berrien iragarle?

Non dira gure izenean
ahobatez hitzegiten
zuten horiek?

Esaidazu
non gelditu diren
ume aroko mila promesak?
Ustezkoa baino ez da
ongizatearen gizartea.

Huskeria nagusi da
itxuraren bestaldean.

Huskerian bizi gara,
lan eta bizi baldintza kaxkarretan,
gure aurrekoen akatsak, gure arazoan eragileak.

GAUR EURIA EGIN DU

(J.L. Otamendi "Zainetan murrailak", 1987, USA)

Gaur ez zaitut ikusi
ez didazu deitu
eta orduak zurekin bezala eman ditut

Gaur
maitasunaz
heriotzaz hitz bi egin dugu
eta gelan tximeleta eri bat sartu zaigu

Gaur
euria egin du

Gaur ez zaitut ikusi
ez didazu deitu
eta orduak zurekin bezala eman ditut

NONBAIT HORRETAN

Utzi eramaten isiltasunak
eremurik duen kale iskinera,
Ikusi, maitasunik bada,
sexu bereko maitaleetan.

Bihotzik badela, sexu bereko maitaleetan.

Gorputzirik badu ezkutukoak,
kolorerik bada txuribeltzean,
nonbaiten, itzalpean, ezagutzen da
eskolan ikasten ez dena.

Bizitzan badelako eskolan ikasten ez dena.

Ausardia da itzalen artean argi dizdira.

Itzalpean bide bat bada,
Ausardia da argi bakarra,
itzalpean bide bakarra.

Ausardia da itzalen artean argi dizdira.

AUTOGALDEKETA

Debekaturiko ura edatera ausartu zinen,
orain ez duzu aitzakirik, ez duzu irtenbiderik.
Begira zaitze ispilura, minduta zaude, minduta.
Nola azaldu egindakoa? Nola adierazi? Nola esan?

Zer esango duzu? Nork sinetsiko dizu? (Bitan)

Endreduan murgildu zara, nahastuta zaude,
nahastuta.
Jada ezin duzu egindakoa ezezzatu, ukatu.

Ez ez ez zara inor, ez ez ez zara ezer (Bitan)

Erlouaren orratzak beti aurrera doaz.
Jada ezingo duzu egindakoa ezezzatu.
Bizkar gainean duzun zama guztian eutsi beharko
dizu, aurre egin beharko dizu.

Zeren esperoan, zeren zai zaude lelo aurpegi
horrekin?
Denbora badao eta ezin zara ainguratu iraganen.

Zer esango duzu? Nork sinetsiko dizu? (Bitan)

IHESI DOA

Ihesi doa etxea utziaz,
ihesi doa argiaren bila, ihesi,
Orroitzapenak, amets eraitsiak,
begirada bat atzean utziaz, utziaz.

Gupidagabe doa
gupidagabe, den dena utziaz.

Den dena utziaz.

Inork ez daki noiz, nola, norekin
bueltatuko den, itzuliko ote den.

Itzuliko ote den,
nola, norekin, itzuliko ote den.

Gaurkoan ere ikusi dut zoriona paseatzen
bakarrik zebilen, bakarrik, lagunik gabe,
arpegi zurbilez.

Bakarrik zebilen,
lagunik gabe arpegi zurbilez.

Ez nau agurtu eta "Bakarne Anderea"
kaletik abiatu da ustezko zoriona.
Itxaropenak aldiz, jai-eguna duenez,
ez du telefonorik hartzen.

ZUENTZAT

Zuentzat dira abesti honen lerroak, kantu honen leloa.
Zuentzat ere gure begirunea, besarkada berona.
Zuentzat kantu bat osatzeko ahalegin hau
eta gure mirespen guztia.

Zuentzat ez da filmerik eginen, telebistarik izanen.
Islitasuna, itsukeria eta egurra, besterik ez.
Dena den, denborak bakoitza
bere lekuan ipintzen omen du.

Zuentzat da gure kantua,
zuentzat da gure oihua,
zuentzat.

BIHARAMUNEAN

Une honetan ezin zaitut
begietara begiratu,
ezin dut.
Samintasunak salatu arren,
ez dizut inolaz gezurrik esango,
inolaz.

Burua galdu nuen pozoi putzu
batean
harrokeria gailendu zen
orduan.

Guztiz etsita nago orain
egindakoarengatik
eta jaino nintzen egunaz
damutzen naiz.

Damu naiz.

Uneoro damutzen naiz,
orduro damutzen naiz.

HEMEN EZ DA EZER GERTATZEN

Non dira Giza Eskubideak eta bere aldekoak,
isilik geratu chi direnak bertakoak direnean...

Kolpeak ez dira antzematen, ez dira esistitzen.
Ez da ezer inkomunikazioa iragan ondoren...

Baina ez da ezer gertatzen,
ezer gertatzen.
Baina ez da ezer gertatzen,
ez da ezer gertatzen.

"Y mientras exista la tortura, seguirá habiendo lucha"

GAUERDIKO GOGOETAK

Denboraren orratzak izoztu egin dira
eta ororena mingari bihurtu da.
Atzo aspaldi da, aintzinekoa.
Biharko eguna aldiz, urrutiegi.

Egunen batean ez dut izanen
inoren beharrik eta mundu osoko
ordulari guztiak izorratuko ditut.

Bitartean ene laguna,
Ez zaitetz joan gauerdian. (Bitan)

Denboraren orratzak izoztu egin dira
eta etorkizuna guztiiz erotu egin da.

Ez zaitetz joan gauerdian. (Bitan)
Gauerdian. (lautan)


PAY YOUR RENTS

Musika: Kaki arkatzo / M-ak

Londonen ingelesa ikasten gustora
pozik bizi nintzen
gure pisuko etxekoandrea oihuka
iritsi zen arte:
"Pay your rents!"

Aspaldian alogera ordaintzeko
dirurik ez nuen
bapatean burua galdu eta zalatu nuen
laban luze batez

Baina hala ere ez zen isiltzen
hizorian zela oraindik oihukatzen zuen:
"Pay your rents!"



IKARAREN GAUA

Albiste bat, nigar isila, heriotza, mina
Lorerik ez, izarik ere ez ikararen gauan

Berandu da zergaitiaz galde egiteko, galde egiteko
Berandu da eta jadanik azalpenak soberan dira

Ikararen gauan (lautan)
azalpen guztiak soberan dira
Ikararen gauan (bitan)

Heriotzak ez ditu inoiz aberri-kontuak ulertu

Amorua gailendu da itxaropenaren katioletan
Oinazean borrokarako beste arrazoi bat jalo berri da

Ikararen gauan (lautan)
beste arrazoi bat jalo berri da
Ikararen gauan (bitan)

Aspalditik amorrua metatuz joan den herrian